



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko apirilaren 11

34. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—2009ko ekitaldiko "Enpresa-jarduera sustatzea" aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena,
Comptos Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2009ko ekitaldiko “Enpresa-jarduera sustatzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak 2009ko ekitaldiko “Enpresa-jarduera sustatzea” aurrekontu-programari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2009ko ekitaldiko “Enpresa-jarduera sustatzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2 or.).
 - II. Helburua, norainokoa eta mugak (3 or.).
 - III. “Enpresa-jarduerak sustatzea” programa (3 or.).
 - III.1. Programaren helburuak eta adierazleak (3 or.).
 - III.2. Antolaketa-egitura (3 or.).
 - III.3. Programaren baliabideak (4 or.).
 - III.4. Araudia (5 or.).
 - III.5. Sektore industriala eta egoera ekonomikoa (5 or.).
 - IV. Ondorioak (7 or.).
 - IV.1. Aurrekontu-programaren betetzea (7 or.).
 - IV.2. Legezketasuna (7 or.).
 - IV.3. Eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia (8 or.).
 - V. Gomendioak (8 or.).
 - VI. Programaren aurrekontu-betetzeari buruzko analisia (9 or.).
 - VI.1. Langile gastuak (10 or.).
 - VI.2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak (10 or.).
 - VI.3. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak (11 or.).
 - VI.3.1 Inbertsioarengatiko diru-laguntzak (11 or.).
 - VI.3.2 Ekonomia bultzatzeko diru-laguntzak (13 or.).
 - VI.3.3 Foru Komunitateko enpresa publiko-
ei emandako diru-laguntzak (13 or.).
 - VI.3.4 Gastu fiskalak (14 or.).
 - VI.4. Finantza-aktiboak (14 or.).
 - VII. Programaren gaineko azterketa operatiboa (15 or.).
- Eranskina: “Enpresa-jarduera sustatzea” programako diru-laguntzen eta kapitaleko aurrerakien deskribapena (18 or.).
- Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (20 or.).
- Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak aurkeztutako alegazioen erantzuna (22 or.).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak 2009ko ekitaldiko "Enpresa-jarduera sustatzea" aurrekontu-programa fiskalizatu du.

Lan hau sartu zen Comptos Ganberak 2010erako onetsi zuen urteko fiskalizazio-programan, eta auditoriako bi teknikariek eta auditore batek osaturiko taldeak egin zuen martxotik maiatzera bitarte, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Gogoratu beharra dago Comptos Ganberak 1996ko abenduan "Industria-jardueraren sustapena" aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena egin zuela, 1994-1995 ekitaldiei buruz, eta 2005eko urtarrilean, berriz, aholkularitza-txosten bat egin zuela "Sustapen jarduerari buruzko araudi indardunak enpresek foru lurraldetik alde egin ez dezaten ziurtatzeko ematen duen bermea" buruz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko langileei eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren xedea da honakoei buruzko ondorioak ateratzea:

a) "Enpresa-jardueraren sustapena" aurrekontu-programak fidelki islatzen ote duen 2009ko gastuen eta diru-sarreraren exekuzioa.

b) Programari aplikatzekoa zaion legedia 2009an bete den.

c) Aurreikusitako helburuak lortzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzearen efizientzia eta ekonomia.

Fiskalizatutako aldia 2009ko ekitaldia izan da, nahiz eta aurreko ekitaldira ere zabaldu den, lanaren xedearen betetzea aztertzeko komenigarri jo dugun alderdietan.

Fiskalizazio-lanean honakoak aztertu dira: programako diru-sarreraren eta gastuen lagin bat, barne kontrola eta programari esleitutako baliabideak eta ezarritako helburuen betetzea.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipio eta arauak jarraituz egin zen azterketa.

Auditoria operatiboko lana egiteko muga bat izan dira programaren helburuen definizioa orokorra izatea, helburu batzuen zenbatespen eza eta programari eginiko giza baliabideen esleipena.

III. "ENPRESA-JARDUERAK SUSTATZEA" PROGRAMA

III.1 PROGRAMAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

"Enpresa-jardueraren sustapena" programaren xedea da industria lehiakorragoa lortzea.

Honakoak dira programaren helburuak eta helburu horiek neurtzeko ezarritako adierazleak:

1. helburua: industria-sektorea indartzea, enpresa berrien ezarpena sustatuz eta lehendik daudenak finkatuz, ekipo produktiboa berritzearen bitartez.

Adierazleak:

- Finantzatu beharreko proiektuen kopurua: 200 espediente

- Enpresa txiki eta ertainen proiektuen ehunekoa: % 75

2. helburua: lurraldean orekatuta dagoen garapen industrialia lortzea.

Adierazleak:

- Iruñetik eta bere eskualdetik kanpoko inbertsioaren ehunekoa: % 65

- Inbertsio horietarako funts publikoen ehunekoa: % 67

3. helburua: jarduera mantentzen laguntzea eta lehiakortasuna lortzea bideragarritasun urriko enpresetan.

Adierazleak:


- Lehiatzen diren proiektuen kopurua: 6

- Finantzaketa-zailtasunak dituzten proiektuen kopurua: 10

Honakoak dira aurreko helburuak erdiesteko ezarritako ekintzak: enpresentzako zuzeneko diru-laguntzak, Sodena S.A. eta Cein S.A. enpresa publikoentzako diru-laguntzak, kapitaleko aurrerakinak eta gastu fiskalak.

III.2 ANTOLAKETA-EGITURA

Honakoa da "Enpresa-jardueraren sustapena" programa kudeatzen duen erakundearen organigrama:



“Enpresa-jardueraren sustapena” programaren kudeaketaz arduratzen den unitate organikoa Enpresen Sustapenerako Zerbitzua da, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko Enpresaren Zuzendaritza Nagusiari atxikia.

Programa bi aurrekontu-proiektutan banatzen da:

- “Inbertsioa sustatzea” proiektua, Laguntzak Kudeatzeko Atalak kudeatzen duena.
- “Produktzioa berrantolatzea” proiektua, Industria Birmoldatzeko Atalak kudeatua.

III.3 PROGRAMAREN BALIABIDEAK

Honakoak izan ziren 2009. urterako aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak:

GASTUAK	Hasierako aurrekontua, gastu fiskalik gabe	Aurrekontua, gastu fiskalekin	Hasierako aurrekontua, guztira
Langileria-gastuak	317.807		317.807
Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	388.410		388.410
Transferentzia arruntak	1.959.000	20.289.797	22.248.797
Kapital-transferentziak	48.966.568	182.341.775	231.308.343
Aktibo finantzarioak	1.000.000		1.000.000
GUZTIRA	52.631.785	202.631.572	255.263.357

DIRUSARRERAK	Hasierako aurreikuspena
Itzulketak	601.500
Ondareko diru-sarrerak	4.500
Aktibo finantzarioak	25.000
GUZTIRA	631.000

Honakoak dira programari esleitutako giza baliabideak: zerbitzuko zuzendari bat, lanaldi partzialarekin, bi atalburu, bi ekonomialari, bulegoburu bat, diplomadun bat eta bi administrari laguntzaile.

Programari egotzitako gastu fiskalak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kudeatzen ditu.

Inbertsiorako diru-laguntzen zati baten kudeaketa Cein S.A. enpresa publikoaren eskuetan uzten da.

III.4 ARAUDIA

Honakoak dira programari aplikatzekoak zaizkion arauak, besteak beste:

- Industri Politikako eta Inbertsio eta Enpleguaren Sustapenerako Bitarteko Neurriei buruzko Araua, 1982koa.

- Maiatzaren 17ko 155/2007 Foru Agindua, industria-inbertsiorako eskualde-laguntzetarako araubidea ezartzen duena.

- Maiatzaren 17ko 156/2007 Foru Agindua, eskualde-laguntzen mapan sarturik ez dagoen eremuan industrian inbertitzeko enpresa txiki eta ertainendako laguntzen araubidea ezartzen duena.

- Abuztuaren 6ko 243/2008 Foru Agindua, 155/2007 eta 156/2007 Foru Aginduak aldatzen dituena.

- Azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretua, inbertsioa eta enplegua sustatzeko laguntzetarako araubide berria ezartzen duena. 261/2001 Foru Dekretuak aldatu zuen.

- Apirilaren 16ko 195/2009 Foru Agindua, industria inbertsiorako laguntzen esparruan energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak zehazten dituen.

- Ekainaren 7ko 177/2007 Foru Agindua, maileguen hobariaren edo errentamendu finantzarioaren motetan industrian inbertitzeko laguntzak emateko Nafarroan kokaturiko entitate finantzarioekin, nahi badute, izenpetu beharreko lankidetzak hitzarmenaren eredia onesten duena.

- Ekainaren 22ko 287/2009 Foru Agindua, Nafarroan ekonomia sustatzeko laguntzenaldi baterako araubidea onesten duena.

- Ekainaren 22ko 1659/2009 Foru Agindua, Nafarroan ekonomia sustatzeko laguntzenaldi baterako araudiaren 2009ko deialdia onesten duena.

- Ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzkoa.

- Irailaren 10eko 185/2007 Foru Dekretua, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea arlo horren gainean indarra duten Europar Batasuneko jarraibideetara egokitzeko arauak ematen dituena.

- Ekainaren 8ko 268/2009 Foru Agindua, zailtasunak dituzten enpresendako laguntzen araubidea ezartzen duena.

- Ekainaren 9ko 1459/2009 Ebazpena, Enpresako zuzendari nagusiak emana, zailtasunak dituzten enpresendako 2009. urteko laguntzen deialdia onesten duena.

- Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Diru-laguntzei buruzkoa.

- 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legea.

- Abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea, sozietateen gaineko zergari buruzkoa.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

III.5 SEKTORE INDUSTRIALA ETA EGOERA EKONOMIKOA.

“Enpresa-jardueraren sustapena” programarekin lotu nahi diren helburuak beren testuinguruan jartzearren, 2009an eta lehenagoko urteetan Nafarroako sektore industrialak zuen egoeraren ezauzgarriak deskribatzen dira.

Honakoak dira sektore ekonomikoek 2008an BPGean eta enpleguan zuten garrantziari buruzko datu batzuk:

Atala	BPGerako ekarpena	Zenbat enpresa	Zenbat enplegu	Enpleguaren gaineko garrantzia
Nekazaritza eta abeltzaintza	% 2,9	272	12.375	% 4
Zerbitzuak	% 57,5	14.331	166.250	% 58
Industria	% 29,5	2.861	78.850	% 27
Eraikuntza	% 10,1	2.964	31.900	% 11

BPGaren ehuneko 29,5 sektore industrialak jartzen du, zeinak lana daukan populazioaren ehuneko 27 hartzen baitu.

Honakoak dira Nafarroako enpresa industrialen jarduera nagusiak: automozioa, elikagaiak, maki-

neria eta ekipoak, metalezko produktuak eta metalurgia.

Nafarroako enpresaren ezaugarrietako bat da tamaina txikikoa izatea: 2008an, sektore guztietako enpresak hartuta, honakoa zen enpresen sailkapena, langileen kopuruaren arabera:

Langileak	Enpresak, %
Langile 1 eta 5 langile bitarte	% 71
6 eta 50 langile bitarte	% 26
51 eta 100 langile bitarte	% 1,5
101 eta 500 langile bitarte	% 1,3
500 langile baino gehiago	% 0,2

Nafarroako enpresa handien artean, 25etik 13 multinazionalak dira.

Sektore industrialari dagokionez, 2007ra arte, sektore industrial lehiakor eta gotor bati buruz hitz egin daiteke, Nafarroako ekonomiak hazkunde handia izan duen eszenatoki ekonomiko batean, non baliabideak baitaude jarduera ekonomikoaren garapena finantzatzeko, enplegu eta jarduera tasa

handiak eta langabezi tasa txikia dituen lan merkatu bat baitago.

2009an, Espainiako ekonomia atzeraldian zegoen, eta Nafarroako ekonomia ere bai. Horixe ondorioztatzen da BPGaren balioetatik; izan ere, hazkundearen edo atzeraldi ekonomikoaren adierazlea da BPGa:

BPGaren hazkundera	2007	2008	2009
Espainia	3,6	0,9	-3,6
Nafarroa	3,8	1,9	-2,5

Nafarroako ekonomiak 2009an beherantz egitea funtsean heldu da, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuen arabera, jarduera industrialean izandako beherakadatik; haren ondoren, eraikun-

tzak eta merkatu zerbitzuek behera egin dute. Honakoak dira sektore horiek urtetik urtera izan duten bariazioaren tasak:

	2007	2008	2009
Industria	2,3	1	-9,6
Nekazaritza	0,7	2,3	1,6
Eraikuntza	5,5	0,2	-3,6
Zerbitzuak	5	2,9	0,7

Nafarroako 2009ko egoera ekonomikoaren beste adierazle batzuk eta aurreko urteekiko alde-raketa:

Adierazleak	2007	2008	2009
Langabezi tasa	% 4,27	% 8,12	% 10,53
Enplegu tasa	% 57,74	% 55,73	% 53,44
KPIa	% 4,2	% 1,2	% 0,5
Aurrekontu-defizita (milioitan)	0,3	-220,1	-151,62

Atzeraldia ekonomikoko testuinguru horretan, 2009an enpresa-jarduera sustatzeko politikak –haren xedea industria lehiakorragoa lortzea da– aurreko ekitaldietako xede berak dauzka; hau da, sektore industriala indartzea, lurraldean orekaturik dagoen garapen industriala lortzea, jarduerari eustea eta bideragarritasun eskaseko enpresetan lehiakortasuna lortzea.

Xede horiek lortzeko, aurreko ekitaldietan ezarritako tresnei eusten zaie; esate baterako, ekipo produktiboa berritatzeko eta enplegua sortzeko zuzeneko laguntzak, enpresa ertain eta txikiei eta lruñetik eta haren eskualdetik kanpo eginiko inbertsioei diru-laguntza portzentaje handiagoa emanaz, likidezia arazoak edo kaudimen teknikoaren eskasia dituzten enpresei maileguak emanaz eta laguntzak gastu fiskalen bitartez gauzatu. 2009an, ez da maileguetako interesetan edo finantza-errentamenduetan hobaririk eman. 140.000 euro zeuden aurreikusita horretarako.

Gainera, 2009an, Gobernuak, krisialdi ekonomikoari erantzuteko eta enpresa-jarduera sustatzeko politikarekin bat eginez, honakoak onetsi zituen Nafarroako ekonomia bultzatzeko eta finantza-egoera larrian zeuden enpresentzat: neurri fiskalak (ondare-elementuen amortizazio azeleratua enpresa txikientzat), neurri finantzarioak (abalak ematea, enpresa publikoen bitartez) eta bestelako laguntzak.

Alabaina, ekintza horiek guztiak aurrekontu-gastuari eusteko neurriak direla medio mugatu izan dira.

IV. ONDORIOAK

IV.1 AURREKONTU-PROGRAMAREN BETETZEA

Orokorrean, “Enpresa-jardueraren sustapena” aurrekontu-programak fidelki islatzen du gastuen eta diru-sarreraren exekuzioa.

Programako gastuek 202,11 milioi euro egin zuten; 2008an baino ehuneko 11 gutxiago, beraz.

Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 83 egin zuen.

Gastu nagusiak gastu fiskalak dira (ehuneko 81), eta diru-laguntzek aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 17 egiten dute.

Programaren diru-sarrerak 537.463 euro egin zuten, 2008an baino ehuneko 41 gutxiago. Haien exekuzio mailak behin betiko aurreikuspenen ehuneko 85 egin zuen.

Diru-sarreraren ehuneko 79 dagokie krisian dauden enpresei emandako aurrerakinen itzulketei, eta ehuneko, 19 diru-laguntzen itzulketei.

2009ko ekitaldiaren bukaeran, programaren diru-sarreraren ehuneko 20 zegoen kobratuta.

Ez zaizkio programari zuzen esleitu, baina aitortutako betebeharraren guttizkoan hurrengo gastuek ez dute munta handiko zenbatekoa egiten:

- Ez dira programaren kudeaketan egotzi beren zerbitzuak eman dituzten langileen gastuak. Horrela, ez ziren egotzi lanaldi partzalean aritzen den zerbitzuko zuzendariaren ordainsariak, ez eta kontratupeko langileenak ere; bestalde, aztertutako programarekin loturirik ez zuten bi ekonomialariren lansariak sartu dira.

- 2010eko aurrekontuari 900.836 euro egotzi zaizkio, 2009ko ekitaldian inbertsioengatik eta enpleguarengatik emaniko diru-laguntzei dagozkienak.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

Oro har, 2009ko ekitaldian bete egin da “Enpresa-jardueraren sustapena” programari aplikatzen zaion araudia, honako salbuespenekin:

- Cein S.A. enpresa publikoari eginiko enkaruan akats batzuk izan ziren, espedientearen onespenera, argitalpenari, espedientearen dokumentazio ez-osoari eta enkargatutako lanen fakturazioari, jarraipenari eta kontrolari dagokienez.

- Inbertsioarengatik diru-laguntzak: ez da egiztatu onuradun guztiek bete dutenik diruz lagun-

dutako inbertsioa ezarritako aldiaren mantentzeari dagokiona. Emandako diru-laguntzen publikitate falta.

- Cein S.A. eta Sodena S.A. enpresa publikoen-tzako diru-laguntzak: 1998an eta 2000n, hurrenez hurren, izenpetutako hitzarmenetan gauzatzen dira. Bi hitzarmenetan soilik exijitzen da, diru-laguntzaren egiaztagiri gisa, diruz lagundutako jardueren eta haiei dagozkien gastuen azalpen txostena. Bi enpresa publikoek diru-laguntzaren aurrerakin batzuk jaso dituzte, baina ez da inon azaltzen justifikatu dutenik funts aurreratuak edukitzea beharrezkoa dela diru-laguntzaren xedeak betetzeko.

- Emandako maileguak: maileguaren interes-tasa finkatzeko erabili zen arrisku-prima baloratu zen bermea entregatu izan balitz bezala, eta ez da inongo kasutan ere ageri hura aurkeztu zenik. Halaber, formazko akats batzuk atzeman dira eskariak aurkezterakoan eta onuradunen baldintzak egiaztatzerakoan.

IV.3 ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

Programaren helburuak industria lehiakorrago bat lortzeko xedearekin lotuta badaude ere, horiek termino orokorretan definituta ageri dira. Bestalde, giza baliabideak gaizki egotzi zaizkio programari.

Ez da adierazlerik definitu enplegua eta inbertsioa sortzeko ezarritako gastu fiskalekin aurreikusitako helburuak neurtzeko.

Ez dira aztertu aurreikusitako helburuen eta lortutako helburuen arteko desbideratzeak.

Horrek guztiak mugak eta zailtasunak ezartzen ditu ebaluatzeko ea programaren kudeaketa eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera gauzatu den.

Hala eta guztiz ere, eta adierazitako mugak gorabehera, honako ondorioak atera ditzakegu:

Inbertsioa sustatzeko proiektua

Aurreikusitako proiektuen ehuneko 97 diruz lagundu dira. Horietatik, ehuneko 90 enpresa ertain eta txikiei dagozkie, nahiz eta haietarako ehuneko 75 zegoen aurreikusita. Proiektu guztietatik, ehuneko 41 –emandako funtsen ehuneko 47 egiten du horrek– Iruñetik eta Iruñeritik kanpoko enpresei dagozkie, eta aurreikuspena da enpresa horiei bideratzea proiektuen ehuneko 65 eta funtsen ehuneko 67.

Helburuak betetzeko aurreikusitako bitartekoei dagokienez, inbertsiorako diru-laguntzetan behin betiko kredituaren ehuneko 67,55 bete da, eta eko-

nomia bultzatzeko diru-laguntzetan, berriz, ehuneko 38 bete da.

Diru-laguntzetarako espedienteak izapidetzeko erabiltzen diren baliabideek espediente bakoitzeko 2.704 euro egin zuten, 2008ko ekitaldian baino ehuneko 40 gehiago, Cein S.A.ri eginiko enkar-guaren gastuak ehuneko 27 egin baitzuen gora eta espediente gutxiago izapidetu baitziren.

Produktzioa berrantolatzeko proiektua

Bideragarritasun urriko enpresetan jarduerari eusteko eta lehiakortasuna lortzeko proiektu horren helburua 9 proiekturen finantzaketan gauzatu da (16 proiektu zeuden aurreikusita), eta 2.831.000 euroko laguntzak –aurreikusitakoan ehuneko 94– eman zaizkie krisi egoeran zeuden eta zailtasunak zeuzkaten enpresei.

57 eskaerari ezezkoa eman zitzairen, aurrekontuan nahiko diru ez egoteagatik.

Erabilitako baliabideei dagokienez, 2009ko kostuak 10.374 euro egin zuen espediente bakoitzeko; 2008an baino ehuneko 68 gutxiago, hain zuzen.

V. GOMENDIOAK

Comptos Ganberak hauxe gomendatzen du:

Aurrekontu programa

Helburu zehatzak eta adierazleak definitzea haien betetzea neurtzeko, eta aurreikusitako helburuen eta lortutakoan artean gertaturiko desbideratzeen jarraipena eta azterketa egitea.

Programari egoztearen haren kudeaketarako egiazki bideratu diren giza baliabide guztien gastua.

Aplikaturako ekintzen eraginkortasuna aztertzea, industria lehiakorrago lortzeko eta industria horrek sektore industrialaren produktibitatea areagotzen lagun dezan, krisi ekonomikoko egoera honetan.

Aurrekontu orokorreari buruzko programaren oroitidazkia deskriptiboan hari buruzko arauak gaurkotzea.

Enkargatutako zerbitzuak

- Aztertzea egokia ote den, efizientziari, ekonomiari eta eraginkortasunari dagokienez, Cein S.A.ri enkargatzea inbertsiorako laguntzen kudeaketa-lanak eta, kasua bada, enkargua onestea enkargatutako lanak hasi aurretik eta behar den denboran eta moduan argitaratzea enkargua.

- Espedientea osatzea arau erregulatzaileetan ezarritako dokumentazio guztiarekin.

- Aurreikusitakoez gorako unitateak egitea baimentzea; halaber, egiazki egindako unitateak fakturatzea.

- Fakturatutako eta egindako lanen jarraipena eta kontrola egitea, eta jasota uztea egindako egiztapenak eta lortutako emaitzak.

Inbertsiorako eta ekonomia bultzatzeko diru-laguntzak

Enpresa onuradun guztietan egiaztatzea bete egiten dela diruz lagundutako inbertsioari ezarri den epean eusteko betebeharra.

Emandako diru-laguntzei publizitatea ematea.

Enpresa publikoentzako diru-laguntzak

Cein S.A. eta Sodena S.A. enpresa publikoentzako diru-laguntzak bideratzeko hitzarmenak gaurkotzea.

Diru-laguntzaren ordainketa aurreratuen kasuan, enpresa publikoei exijitzea funtsen premia justifika dezaten.

“Enpresa-jarduera sustatzea” programaren xedeetarako emandako funtsen aplikazioaren gai-

neko jarraipen efektiboa egitea, eta gutxienez, diruz lagundutako gastuen lagin bateko ziurtagiriak berraztertzea.

Zerga-gastuak

Zehatz eta termino kuantitatiboetan definitzea gastu fiskalekin bilatzen diren helburuak eta “Enpresa-jarduera sustatzea” programaren helburuekin duten erlazioa.

Emandako maileguak

Interes tasa zehaztea aurkeztutako bermearen arabera.

Araudiak laguntza-eskariarekin aurkezteko eta onuraduna izateko exijitzen duen dokumentazio guztia exijitzea.

Aurkeztutako laguntza-eskarien erregistroa osatu eta antolatzea.

VI. PROGRAMAREN AURREKONTU-BETE-TZEARI BURUZKO ANALISIA

Honakoak izan dira “Enpresa-jarduera sustatzea” aurrekontu-programaren 2009ko betetzea eta aurreko ekitaldiko betetzearekiko alderaketa:

Gastuak

GASTUAK	2008ko gastua	2009ko hasierako kreditua	Behin betiko kreditua 2009	2009ko gastua
Langileria-gastuak	310.592	317.807	320.068	320.068
Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	255.374	388.410	327.962	322.249
Transferentzia arruntak	20.579.359	22.248.797	22.348.797	15.625.523
Kapital-transferentziak	205.038.846	231.308.343	217.775.110	183.022.326
Aktibo finantzarioak	750.000	1.000.000	2.900.000	2.815.000
GUZTIRA	226.934.171	255.263.357	243.671.937	202.105.166

Programa horretarako onetsi ziren hasierako kredituek 255,26 milioi euro egiten dute. Ekitaldian zehar 11,59 milioi euro egiten duten aurrekontualdaketak egin ziren. Horrek ehuneko 4,5eko jaitsi-erakusten du hasierako kredituekiko. Amaierako kreditua, berriz, 243,67 milioi eurokoa da.

Programaren gastuek 202,11 milioi euro egiten dute, eta haien betetze-maila da behin betiko kredituen ehuneko 83koa.

2008ko ekitaldiarekin alderatuz gero, gastuek ehuneko 11 egin dute behera.

Gastuaren egiturari dagokionez, kontzeptu nagusiak gastu fiskalak dira, zeinek aitorturiko betebeharrak egiten dituzten ehuneko 81 egiten baitute, eta emandako laguntzek, berriz, ehuneko 17 egiten dute.

Diru-sarrerak

DIRU-SARRERAK	2008ko diru-sarrerak	2009ko hasierako aurreikuspena	2009ko behin betiko aurreikuspena	2009ko diru-sarrerak
Itzulketak	505.481	601.500	601.500	101.808
Ondarearen diru-sarrerak	8.383	4.500	4.500	10.655
Aktibo finantzarioak	400.000	25.000	25.000	425.000
GUZTIRA	913.864	631.000	631.000	537.463

Programako diru-sarrerak 537.463 euro egin zuten, hain zuzen ere 2008an sortutakoek baino ehuneko 41 gutxiago. Exekuzioa, berriz, aurreikuspenen ehuneko 85koa izan zen.

Diru-sarreraren ehuneko 79 krisi betearen enpresei emandako aurrerakinen itzulketei dagokie; ehuneko 19, berriz, diru-laguntzen itzulketei, eta gainerakoak, krisian dauden enpresentzako aurrerakinen interesei.

2009ko ekitaldiaren bukaeran, programaren diru-sarreraren ehuneko 20 zegoen kobratuta.

VI.1 LANGILE GASTUAK

“Enpresa-jarduera sustatzea” programari langileengatik egotzitako gastuek 320.068 euro egiten dute.

Zenbateko horrek ez ditu islatzen aztertutako programaren kudeaketarako erabili ziren baliabide pertsonalen gastuak. Horrela, ez zen egotzi kontratatutako langileen gastua, ez eta lanaldi partzialen jardun duen zerbitzaburuarena ere. Bestalde, bi ekonomialari sartu dira, programako lanetan jardun ez dutenak.

VI.2 ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK

Ondasun arruntengatik eta zerbitzuengatik gastuek 322.249 euro egiten dute. Zenbateko horretatik, 317.296 euro Cein S.A. enpresa publikoak inbertsiorako eta enplegurako diru-laguntzen kudeaketan emaniko zerbitzuei dagozkie. Zerbitzu horiek ehuneko 27 egin zuten gora 2008an sortutakoan aldean.

Nafarroako Gobernuak Cein S.A.ri aitortu zion, 2007ko uztailaren 16an, bere xede sozialari berez dagozkion arloetako ente instrumentalaren izaera. Cein S.A. enpresaren kapitala ez da guztiz publikoa. Sodenak S.A.k partaidetzaren ehuneko 95,92 dauka, eta aldi berean, Nafarroako Gobernuak Sodena S.A.ren partaidetzaren ehuneko 97,6 dauka, eta Nafarroako Kutxaren Enpresa Talde Korporatiboak, berriz, ehuneko 2,44. Cein S.A.ren

kapitalaren gainerako ehuneko 4,08a Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioakoak ez diren beste entitate batzuei dagokie.

Europar Batasunaren jurisprudentziaren arabera, ezin da ulertu partaidetza pribatua duten sozietate publikoak ente instrumentala izatea, ez eta haiek gomendioak jasotzea ere. Hori dela eta, egiten zaizkien enkarguak Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeari lotuta daude.

Cein S.A. sozietate publikoari eginiko enkarguaren berrazterketan, honako gabeziak atzeman dira:

– Prestazioa hasi eta gero onetsi zen enkargua.

Enkargua, 2009ko maiatzaren 20koa, 2010eko apirilaren 14an argitaratu zen Kontratazioen Atarian. Ez zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Enkarguaren espedientean ez daude jasota enkargatutako lan, eginkizun edo jardueren xehe-tasunak.

Sozietate publikoaren fakturazioari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

– Ez da fakturazioa berraztertzen.

– Ezin da egiaztatu ea hilerok fakturatu diren langileek egiaz enkargatutako prestazioa egin duten; gainera, fakturan ageri diren pertsonen kopurua ez dator beti bat fakturarekin batera aurkezten den dokumentuan, egindako lanaren xehe-tasunak dakartzanean, adierazitakoarekin.

– Cein S.A.ko teknikari baten 199 ordu fakturatu dira, aurreikusitakoak baino gehiago direnak eta haren urteko gehieneko lanaldia gaitzen dutenak, baina ez dago jasota enkargua egin duen organoaren alde aurreko adostasuna.

Langileei dagokienez, ez dago jasota Cein S.A.k departamentuari jakinarazi zion enkargatutako lanari atxikitako pertsonen taldea, ez eta geratutako altak eta bajak ere.

– Kilometrajeko gastuetan 3.402,59 euro fakturatu ziren. Ez da ageri zein den kilometroko pre-

zioa, zeina ez baitzen aurrekontuan jaso, ez eta egindako kilometroak ere; ez da esaten, ezta ere, zein langilek egin zituzten.

– 4.704 euro fakturatu ziren bekadun batengatik, enkarguaren aurrekontuan aurreikusita ez zegoena, eta geroztik ere onetsi ez zena. Ez dago jasota bekadun batek esku hartu zuenik enkargatutako lanean.

Cein S.A.k ez du aurkeztu enkargatutako lanen exekuzioari buruzko urteko txostenik.

VI.3 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEKOAK.

Transferentzia arruntengatik programan eginiko gastuek 15,63 milioi euro egin zuten, eta kapitalekoek, berriz, 183,02 milioi euro. Kontzeptu hauei dagozkie:

	2009ko gastua
Transferentzia arruntak:	15.625.523
– Foru Komunitateko enpresa publikoei	950.000
– Berrabiatzeko eta saneatzeko planetarako diru-laguntzak	16.000
– Ekonomia bultzatzeko diru-laguntzak	192.880
– Enplegua sortzeko gastu fiskalak	14.466.643
Kapital transferentziak:	183.022.325
– Inbertsioarengatiko diru-laguntzak	32.982.537
– Ekonomia bultzatzeko diru-laguntzak	1.209.265
– Inbertsioarengatiko gastu fiskalak	148.830.523

VI.3.1 Inbertsioarengatiko diru-laguntzak

2009an inbertsioak egiteko emaniko diru-laguntzak 32.982.537 eurokoak izan ziren, eta honakoei dagozkie:

- 28.586.142 euro inbertsioarengatiko eta enpleguarengatiko diru-laguntzak dira, Inbertsioa eta enplegua sustatzeko laguntzetarako araubide berria ezartzen duen azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretuan araututakoak.

- Inbertsioarengatiko 4.396.395 euroko diru-laguntzak, arautuak daudenak industria-inbertsio-

rako eskualde-laguntzetarako araubidea ezartzen duen 155/2007 Foru Aginduan eta Eskualde-laguntzen mapan sarturik ez dagoen eremuan industrian inbertitzeko enpresa txiki eta ertainendako laguntzen araubidea ezartzen duen 156/2007 Foru Aginduan.

Inbertsiorako eta enplegurako diru-laguntzak

Bi kontusail desberdin kontabilizatu dira FEDERen finantziazioa ere baduten proiektuak bereizteko.

	Inbertsioa enplegua	eta Inbertsioa FEDER	enplegua,
Behin betiko kreditua	17.182.978		21.413.590
2009ko gastua	13.979.514		14.606.628
2008ko gastua	24.233.070		22.484.667
Betetakoa (%)	81%		68%
Zenbat enpresa onuradun:			
– 2009an	25		113
– 2008an	51		221
Lagina:			
– Zenbat enpresa			
– Berraztertutako zenbatekoa	% 4		% 4
– Diruz lagundutako guztizkoaren gainean	11.779.399		4.022.808
– berraztertutakoaren ehunekoa	% 84		% 28

Enpresa onuradunek jasotako diru-laguntzek honako tarteetan sailkaturiko zenbatekoak dituzte:

Zenbatekoa	Zenbat enpresa	
	Inbertsioa eta enplegua	Inbertsioa eta enplegua, FEDER
4.800.000 - 4.939.000	2	
1.000.000 - 2.000.000	1	4
500.000 - 750.000	1	4
100.000 - 500.000	8	24
450 - 100.000	13	81
	25	113

Honakoak izan dira hautatutako lagina berrikustetik ateratako ondorioak:

Onuradun guztien kasuan, ez da bost urtez egiaztatzen diruz lagundutako inbertsioari eutsi egiten zaiola. Egiaztatze hori egiten da soilik aipatutako epea amaitu baino lehen diru-laguntza berriz ere eskatzen duten enpresen kasuan.

2010eko aurrekontuari 900.836 euroko gastuak egotzi zaizkio, 2009an sortutako diru-laguntzei dagozkienak.

Inbertsioarengatiko diru-laguntzak (araudi berria)

Honakoak izan ziren 2009an emandako diru-laguntzak eta berrikuspenerako hautatutako laginak:

	Lagundutako eremua	Lagundu gabeko
Behin betiko kreditua	3.600.000	1.300.000
2009ko gastua	3.321.590	1.074.805
Behin betiko kredituaren gainean betetakoaren	92%	83%
Zenbat enpresa onuradun	31	24
Lagina:		
- Zenbat enpresa	3	3
- Berrikusitako zenbatekoa	1.769.461	280.138
- Berrikuspenaren ehunekoa, diruz lagundutako guztizkoaren gainean	53%	26%

Diru-laguntza horiek jaso dituzten enpresa onuradunek honako tarteetan sartzen diren diru-zenbatekoak jaso zituzten:

Zenbatekoa	Zenbat enpresa	
	Lagundutako eremua	Lagundu gabeko eremua
1.420.422	1	
250.000 - 350.000	2	
100.000 - 200.000	4	3
6.500 - 100.000	24	21
	31	24

Enpresa guztietan ez da egiaztatzen onuradunak diruz lagundutako inbertsioari eusteko eta hura atxikitzeko daukan betebeharra betetzen duen, gutxienez ere inbertsio osoa egin eta hurrengo 10 urteetan.

VI.3.2 Ekonomia bultzatzeko diru-laguntzak

Laguntza horiek 2009an ezarri ziren, eta Nafarroan ekonomia sustatzeko laguntzen aldi baterako araubidea onesten duen ekainaren 22ko 287/2009 Foru Aginduan daude araututa. Haien jatorria Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean

	Arruntak	Kapitalekoak
Behin betiko kreditua	1.000.000	3.000.000
2009ko gastua	192.880	1.209.265
Behin betiko kredituaren gainean betetakoaren ehunekoa	% 19	% 40
Zenbat enpresa onuradun	6	3
Lagina:		
- Zenbat enpresa	3	2
- Berraztertutako zenbatekoa	94.880	994.064
- Berrikusitakoaren ehunekoa, diruz lagundutako guztizkoaren gainean berraztertutakoaren ehunekoa	% 49	% 82

Laguntza horiek ez zeuden aurreikusita 2009ko aurrekontuan. Laguntza arruntekin enpresen bidegarritasun planak finantzatu dira.

Honakoak izan dira lagina berrikusterakoan hautemandako akatsak:

Emandako laguntzak ez dira ezagutzera eman.

Onuradun guztien kasuan, ez da egiaztatzen inbertsioari ezarritako epean –bost edo hamar

Batzordearen honako komunikazio hau argitaratzean datza: “Estatuen laguntza-neurriari aplikatzen zaien aldi baterako esparrua, egungo krisi ekonomiko eta finantzarioaren testuinguruan finantziarioa lortzea erraztekoa”.

Haien xedea da Nafarroako enpresen ehunduraren lehiakortasuna areagotzea, krisi ekonomiko eta finantzariotik indartuta ateratzeko.

Honakoa izan da laguntza horien 2009ko bete-tzea eta berrikusitako lagina:

urte, finantzatutako ondasunaren arabera– eusteko betebeharra betetzen ote den.

VI.3.3 Foru Komunitateko enpresa publikoei emandako diru-laguntzak

2009an, enpresa-jarduera sustatzeko programaren harira, honako diru-laguntzak eman zaizkie enpresa publikoei:

Enpresa publikoa	Zenbatekoa
Sodena S.A.	200.000
Cein S.A.:	750.000

Diru-laguntza horiek, 2009rako Aurrekontuei buruzko Foru Legean aurreikusiak, hitzarmenen bitartez bideratzen dira. Sodenarekiko hitzarmena 1998an sinatu zen, eta Ceinekikoa, 2000n. Biak ere orduko Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuarekin.

Horiek berrikustean honako akatsak hauteman dira:

Ez dago jasota Sodenak departamentuari proposamena egin dionik 2009an egin beharreko sustapen eta zabalkunde jarduketei eta haiek egiteko aurreikusitako kostuari buruz, ez eta, horrenbes-

tez, departamentuak jarduera horiek ekitaldiaren hasieran onetsi zituenik ere, hitzarmenean ezarritakoaz kontra. Horrenbestez, departamentuak ez du jakiten diru-laguntza ematen duen ekitaldia pasa eta hurrengo ekitaldira arte zein jarduera ari den diruz laguntzen.

Diru-laguntza bai Sodenari, bai Ceini, ordaintzen zaie diruz lagundutako jarduera justifikatu aurretik. Ordainketa aurreratzea bi enpresa publikoekiko hitzarmenetan dago aurreikusita, baina ez dago jasota sozietate horiek diru-laguntzaren xedeak betetzeko funts aurreratuen beharra justifikatu dutenik.

Bai Sodenak bai Ceinek jasotako diru-laguntza justifikatu zuten diruz lagundutako jardueren eta egindako gastuen azalpen-txosten bat aurkeztuz 2010eko lehenengo hiruhilekoan. Departamentuak ez zuen komenigarritzat jo gastu horien ziurtagiriak eskatzea, ez eta bestelako egiaztatze-lanik egitea ere. Ceinen kasuan, "Proiektuen arabera ezin har daitezkeen gastu orokorrak" izeneko kontusail bat finantzatu zen, 102.000 euro egiten duena. Kopuru hori nagusiki probisioei eta gastu finantza-

rioei dagokie. Gainera, sozietate publiko horrek jaso zituen betetako gastuak baino 1.001 euro gehiago.

VI.3.4 Gastu fiskalak

"Enpresa-jarduera sustatzea" programari egozitako gastu fiskalak transferentzia arrunten eta kapitaleko transferentzien kontzeptuetan biltzen dira, eta honako betetzea dute:

Kontzeptua		Hasierako kreditua	Gastua	Betetakoa (%)
Transferentzia arruntak:				
Zerga-gastuak	enplegua	20.289.797	14.466.643	% 71
Kapital transferentziak:				
Inbertsioarengatiko gastu fiskalak		182.341.775	148.830.524	% 86
	Guztira	202.631.572	163.297.167	

"Enpresa-jarduera sustatzea" programako helburuak betetzeko ezarritako pizgarri fiskalek berekin ekarri dute PFEZarengatiko eta sozietateen

gaineko zergarengatiko diru-sarrerek behera egin izatea:

	PFEZa		Sozietateen gaineko zerga	
	Aurrekontua	Gastua	Aurrekontua	Gastua
1-Zerga-oinarriaren gutxitzea				
-Berrinbertsioarengatiko salbuespenak	770.918	364.570		
2-Zerga-oinarriaren doitzeak				
-Inbertsioarengatiko erreserba berriak			23.953.464	12.021.889
-Amortizazio askatasuna			4.580.086	-455.144
-Berrinbertsioarengatiko salbuespenak			29.749.008	15.155.119
3-Kuota osoaren kenkaria:				
-Inbertsioak	21.067.418	25.059.885	82.588.323	74.107.355
-Enplegua sortzea	1.260.891	957.294	19.028.906	13.509.349
-Jarduera ekonomikoen gaineko zergak	4.804.888	4.244.981	3.082.618	2.900.023
4-Kuota-hobariak			11.745.052	15.431.846
Guztira	27.904.115	30.626.730	174.727.457	132.670.437

2009ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrean, oroit-idazkiaren barrenean, 2009ko Onura Fiskalen Aurrekontua jasotzen da.

Gastu fiskalak simulazioaren metodoarekin kalkulatu dira, datu-iturri gisa hartuz kitatutako azken zergaldiko PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren aitorpen guztiak, hau da, 2007ko ekitaldikoak onura fiskalen aurrekonturako (aurrekontuaren hasierako kredituak) eta 2008ko ekitaldikoak haiek kontabilizatzeko (aitortutako betebeharrak).

"Enpresa-jarduera sustatzea" programako ardura duten Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren unitate organikoek ez dute gastu fiskalen jarraipenik egin eta, horrenbestez,

ez dute egiaztatu neurri fiskal horiek eraginkorrak izan diren aipatutako programaren helburuak lortzeko.

VI.4 FINANTZA-AKTIBOAK

"Enpresa-jarduera sustatzea" programako aktibo finantzarioetako gastuak 10 enpresari emandako kapitaleko aurrerakinei dagozkie, eta guztira 2.815.000 euro egiten dute. 2008. urtearen aldean, ehuneko 275 egin dute gora.

Kapitaleko aurrerakinak honakoetan araututa daude: Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea; 3/2000 Foru Legea Europar

Batasunaren zuzentzaruetara egokitzeko arauak ematen dituen ekainaren 10eko 185/2007 Foru Dekretua, eta zailtasunak dituzten enpresentzako laguntzen araubidea ezartzen duen ekainaren 8ko 268/2009 Foru Agindua.

Honakoak dira hiru enpresari emandako 1.150.000 euroko aurrerakinak emateari buruzko langinak berrikusiz ateratako ondorioak:

Aurkeztutako eskabideen erregistro oso eta koherenterik ez egoteak ez du biderik ematen egiaztatzeko espedienteak izapidetu eta ebatziko direla eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren arabera, horrelako laguntzei buruzko araudian ezartzen den bezala.

Emandako aurrerakinak ez dira ezagutzera eman.

Egiaztatu da deskoordinazioa gertatu dela kapitaleko aurrerakinen ardura duen unitatearen eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko kontabilitate-bulegoaren artean.

Aurrerakinaren interes tasa zehazten da Europar Batasunak ezarritako erreferentziako tasari dagokion arrisku-prima gehituz eta aurreko baturari ehuneko 50eko hobaria aplikatuz. Bestalde, arrisku-prima zehazteko, kontuan hartu behar da bermerik aurkezten den ala ez, eta aurkeztekotan, zein berme-mota den.

Kasu guztietan, arrisku-prima baloratu zen bermea entregatu izan balitz bezala, eta inongo kasutan ez da jaso aurkeztu zenik.

375.000 euroko mailegu baten onuradunak ez du bideragarritasun planik aurkeztu, eta ez du justifikatu, ezta ere, jasotako funtsak zertan aplikatu dituen. Maileguaren kapital printzipala eta dagozkion korrituak ere ez ditu itzuli. Horri dagokionez, kontabilitate-bulegoak zorra Nafarroako Tributu Ogasunari helarazi zion, diru-kopuru hori premiamenduzko prozeduraren bitartez bil zezan.

Berrikusitako hiru espedienteetatik bitan, laguntza emateko proposamenari buruzko txostena laguntza bera eskatu aurrekoa da.

Berrikusitako hiru enpresetatik bakarrak ere ez du aurkeztu, laguntza hauei buruzko araudiaren arabera, eskaerarekin batera aurkeztu beharko litzatekeen dokumentazio guztia.

Ez dago jasota, berrikusitako hiru onuradunetatik biren kasuan, "erantzukizuneko deklarazio" bat aurkeztu dutenik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako baldintza orokorren betetzea ziurtatzeko; izan ere, laguntza hauen araubideak arau horietara jotzen du.

VII. PROGRAMAREN GAINEKO AZTERKETA OPERATIBOA

"Enpresa-jarduera sustatzea" programaren erantzukizuna duten unitateak Laguntzak Kudeatzeko Atala eta Industria Berrantolatzeke Atala dira.

Programak eta Proiektuak Ebaluatzeko bulegoa sortu zen, Laguntzak Kudeatzeko Atalaren menpe, baina ez du langilerik. Enpresa Txiki eta Ertaintzako Laguntzak Kudeatzeko Bulegoak bulegoburu bat beste langilerik ez du.

Enpresen Sustapenerako Zerbitzuko zuzendaria 2009ko martxoan hasi zen bere lanpostuan lanean, eta Industria Berrantolatzeke Ataleko burua, berriz, urte bereko apirilean.

Inguruabar horiek, 2009an zehar programari buruzko araudi berria onetsi izana eta krisi ekonomikotik heldu diren zailtasunak baliagarri dira "Enpresa-jarduera sustatzea" programako ekintzen kudeaketan atzemandako gabeziak batzuk azaltzeko.

Programaren helburuak lortzeko aurrera eramandako ekintzak, zuzeneko diru-laguntzei eta kapitaleko aurrerakinei dagokienez, kasuko legegadepenean araututa daude. Halere, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sarturiko aurrekontu-programaren oroit-idazkiak ez du zehazki jasotzen programari aplikatu beharreko araudia.

Programa honi egotzi beharreko gastu fiskalei dagokienez, onura fiskalen aurrekontu bat egin da, 2009. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren oroit-idazkiari atxiki zaiona. Gastu horiek Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kudeatu eta kontabilizatzen ditu. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak –hari baitagokio aztertutako programa– ez du esku hartu haren ezarpenean, kudeaketan eta jarraipenean.

Ondoren, "Enpresa-jarduera sustatzea" programako bi proiektuak aztertzen ditugu.

"Inbertsioa sustatzea" proiektua

Honakoak dira helburuak:

1- Industria-sektorea indartzea, enpresa berrien ezarpena sustatuz eta lehendik daudenak finkatuz.

2- Lurraldean orekatuta dagoen garapen industrial lortzea. Helburu hori lortzeko, Iruñetik eta Iruñeritik kanpoko ezartzea bultzatzeko jardura abiarazi da.

Helburu horiek zerikusia dute programak industria lehiakorrago lortzeko daukan xedearekin, eta

diru-laguntzak ezarri dira haiek erdiesteko inbertsiorako eta ekonomia eta gastu fiskalak bultzatzeko.

Honakoak dira aurreko helburuak neurtzeko adierazleetako batzuk:

Helburuekin lotura duten kontusailak	Adierazleak				Betetakoa (%)
	Aurreikusia	Burutua	Kreditu bateratua	Aitorturiko betebeharrak	
Diru-laguntzak.					
– Inbertsioa			48.826.568	32.982.537	% 67,55
Proiektu kopurua	200	194			
Enpresa txiki eta ertainak	150 (% 75)	174 (% 90)			
Iruñetik eta Iruñeritik kanpo					
– Proiektuak	% 65	% 41			
– Diru-laguntzak	% 67	% 47			
Sorrarazi den enplegua		491			
Sorrarazi den inbertsioa		276.789.509			
– Ekonomiaren bultzada			4.000.000	1.402.145	% 35
Gastu fiskalak					
– Enpleguaren sorrera			20.289.797	14.466.643	% 71
– Enpresen inbertsioa			182.341.775	148.830.524	% 82

Eraginkortasuna

Programaren eraginkortasuna aztertuko dugu egiaztatuz aurreikusitako helburuak bete diren, hori neurtzeko ezarritako adierazleen bitartez.

Ez da adierazlerik aurreikusi enplegua eta sorrarazitako inbertsioa neurtzeko.

Ez dago inon jasota proiektuko kudeatzaileek aurreikusitako helburuen eta betetako helburuen arteko desbideratzeak aztertu dituzten.

Gastu fiskalei dagokienez, ez dago jasota adierazlerik definitu izana helburuak betetzeko; horrenbestez, ez da egiaztatu eraginkorak izan ote diren inbertsioa sustatzeko proiektuaren helburuak lortzeko ezarritako pizgarri fiskalak.

Inbertsiorako eta enplegurako 194 proiektutarako diru-laguntzak eman dira, hain zuzen ere aurreikusitako kasuen % 97an. Guztizko horretatik, ehuneko 90, 174 proiektu, enpresa txiki eta ertainei dagozkie. Horrekin, ezarritako helburua bete

da; alegia, diruz lagundutako proiektuen ehuneko 75 enpresa txiki eta ertainenak izatea.

Lurraldean garapen orekatua lortzeko helburua noraino bete den neurtzeko, aurreikuspen batzuk ezarri ziren; alegia, diruz lagundutako proiektuen ehuneko 65 eta diru-laguntzen ehuneko 65 Iruñetik eta Iruñeritik kanpoko enpresetan gauzatzea. Horri dagokionez, ordea, emaitzak aurreikuspenen azpitik egon dira, zeren eta diruz lagundutako proiektuen ehuneko 41 –emandako diru-laguntza guztien ehuneko 47 egiten dutenak– baizik ez baitagozkie Iruñetik eta Iruñeritik kanpoko enpresei.

Helburuak betetzeko aurreikusitako bitartekoei dagokienez, inbertsiorako emandako diru-laguntzetan, behin betiko kredituaren ehuneko 67,55 bete da, eta ekonomia bultzatzeko diru-laguntzetan, berriz, soilik ehuneko 38 bete da.

Efizientzia.

Efizientzia aztertzeko, aurrekontu-proiektuari egotzitako baliabideak eta lortutako emaitzak alderatu ditugu:

	2009	2008
Baliabideak:	548.955	468.382
• Langile berekiak	228.847	216.053
• Cein S.A.ri eginiko enkargua	320.108	252.329
Espediente kopurua Izapidetutako diru-laguntzak	203	243
Inbertsio eta enplegurako diru-laguntza	34.384.682	46.717.737
Sorrarazi den inbertsioa	276.789.509	354.056.757
Sorrarazi den enplegua	491	841
Korrituen hobariak	0	75.982
Baliabideak/espediente kopurua	2.704,21	1.927,50
Baliabideak/sorrarazitako enpleguak	1.118,03	556,93
Baliabideak/Diru-laguntzen zenbatekoa	0,016	0,010

“Inbertsioa sustatzea” proiektuari egotzitako baliabideek –bai langile berekiak, bai CEIN S.A. enpresa publikoko langileak, hari enkargatu baitziztaion inbertsiorako diru-laguntzen kudeaketaren zati bat– 2.704,21 euro egin zuten izapidetutako espediente bakoitzeko, 2009an; aurreko urtean baino ehuneko berrogei garestiago, beraz. 2009an, diru-laguntzetan emandako euro bakoitzeko, 0,016 euro gastatu ziren baliabideetan, 2008an baino ehuneko 60 gehiago.

Horri dagokionez, ez dago jasota enpresa publikoari emaniko enkargua giza baliabideetan ahal den kostu txikienarekin egiten denik, ez eta programako helburuak lortzeko egokia den diru-zenbateko batekin egiten denik ere.

Txosten honetako langile-gastuen atalean iruzkindu dugun bezala, ez dira egotzi 2009an progra-

man egiazki beren zerbitzuak eman zituzten langile bereki guztien gastuak.

“Produkzioa berrantolatzea” proiektua

Helburu du jarduera mantentzen laguntzea eta lehiakortasuna lortzea bideragarritasun txikiko enpresetan. Ekintzetarako ezarritako ildoak da krisian dauden enpresei laguntzea.

Helburu horrek ongi islatzen du programaren xedea; alegia, industria lehiakorragoa lortzea, eta hura lortu nahi da kapitaleko aurrerakinak eta diru-laguntzak emanez krisian dauden eta zailtasunak dauzkaten enpresei.

Honakoa da aurreikusitako helburua neurtzeko ezarri diren adierazleen balioa:

Aurrekontuko kontusailak	Adierazleak				
Krisian dauden edo zailtasunak dituzten enpresentzako laguntzak	Aurreikusia	Egiazkoa	Kreditu bateratua	Aitorturiko betebeharrak	Betea, %
- Proiektu kopurua	16	9	3.009.000	2.831.000	% 94

Aurreikusita zegoen 16 proiektu finantzatzea guztira. Guztira, bederatzi proiekturi baino ez zaio diru-laguntzarik eman, hain zuzen ere aurreikusitakoen ehuneko 56ri. 2.831.000 euro gastatu dira; kreditu bateratuaren ehuneko 94, hain zuzen. Aurreikusitako hasierako kreditua 1.009.000 euro-

koa izan zen, eta gero beste 2.000.000 euro gehitu zitzaizkion.

Eskaerak 80 izan ziren; horietatik, 57ri ezezkia eman zitzaion, aurrekontuetan nahiko diru ez edukitzeagatik.

Efizientzia.

	2009	2008
Baliabideak:	93.362	97.585
• Langile berekiak	91.959	96.482
• Askotariko gastuak	1.403	1.103
Espediente kopurua Izapidetutako diru-laguntzak	9	3
Kapitaleko aurrerakinak	2.831.000	750.000
Baliabideak/espediente kopurua	10.374	32.528

2009an, enpresei kapitaleko aurrerakinak emateko erabilitako baliabideek 10.374 euro egiten zuten emandako proiektu bakoitzeko, hain zuzen ere aurreko ekitaldian erabilitakoak baino ehuneko 68 gutxiago.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izaipideak bete ondoren, auditore M^a. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

ERANSKINA: "ENPRESA-JARDUERA SUSTATZEA" PROGRAMAKO DIRU-LAGUNTZEN ETA KAPITALEKO AURRERAKINEN DESKribAPENA

Inbertsiorako eta enplegurako diru-laguntzak

Araubidea: azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretua, inbertsioa eta enplegua sustatzeko laguntzetarako araubide berria ezartzen duena.

Horretara bil daitezkeen inbertsioak:

1. Kapital finkoetan egiten diren inbertsioak, honako helburu hauekin egiten badira: establezimendu berria irekitzea, egun dagoen establezimendu bat handitzea, edo jarduera bat abiaraztea produktuan edo produkzio prozeduran funtsezko aldaketa bat egitea dakarrena.

Era berean, laguntza jaso dezakete kapital finoko inbertsioek ere, baldin eta itxitako establezimendu bat edo berriz erosi ez balitz itxiko zena eskualdatzeko badira.

2. Teknologiaren trukeari lotutako aktibo ez-materialetan egiten diren inbertsioak, hots, patenteen, lizentzien, "know-how" delakoen edo patente ez duten ezaupide teknikoaren eskubideak erosteko egindakoak.

Laguntza motak:

1. Inbertsiorako zuzeneko diru-laguntza, haren gaineko ehuneko jakin bat.

2. Enplegua sortzeagatiko inbertsioa. Laguntza 500.000 pezeta bitartekoa izanen da, sortzen den urteko lan-unitate bakoitzeko.

3. Maileguetako edo finantza errentamenduko korrituetarako hobari gisako laguntzak. Gehienez 5 puntuko korritu-tasa diruz lagunduko da, eta aurreko urteko abenduaren 31n metaturiko KPI adinakoa, gutxienez.

Inbertsioarengatiko diru-laguntzak (araudi berria)

1.- Araubidea: Maiatzaren 17ko 155/2007 Foru Agindua, industria-inbertsiorako eskualde-laguntzetarako araubidea ezartzen duena.

Horretara bil daitezkeen proiektuak

Enpresa berri bat ezartzeko aktibo material eta ez-materialetan inbertitzea; establezimendu bat handitzea; establezimendu baten ekoizpena dibertsifikatzea, produktu berrien eta bestelakoen merkatuak hornitzeko; establezimendu bateko ekoizpen prozesu orokorra funtsean aldatzea, eta establezimendu bati zuzenean loturiko aktiboak eskuratzea, baldin eta itxia izan bada, edo eskuratu ezik itxia izanen zena, eta eskuratzaileria inbertsore beregain bat bada.

Laguntza motak.

a) Inbertsiorako zuzeneko diru-laguntza, haren gaineko ehuneko jakin batekin adierazia.

b) Laguntzak, maileguen interesen hobari gisakoak: edo errentamendu finantzario gisakoak: gehienez ere 5 puntu, edo zenbateko apalagoa izanez gero, interes puntu guztiak.

Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren gehieneko kopurua diru-laguntza gordinaren % 10 izanen da. Muga hori handitzen ahalko da, diru-laguntza gordinaren % 20, enpresa txikiei emandako laguntzen kasuan, eta % 10, enpresa ertainei emandako laguntzen kasuan.

2. Araubidea: maiatzaren 17ko 156/2007 Foru Agindua, eskualde-laguntzen mapan sarturik ez dagoen eremuan industrian inbertitzeko enpresa txiki eta ertainendako laguntzen araubidea ezartzen duena.

Honakoak dira eskualde-laguntzen mapan sarturik ez dagoen eremuko udalak: Andosilla, Antsoain, Aranguren, Azagra, Barañain, Beriain, Berribeiti, Berriozar, Burlata, Cárcar, Zizur, Etxarri, Egues, Noain (Elortzibar), Galar, Uharte, Lerin, Oltza, Orkoien, Iruña, San Adrián, Atarrabia, Zabaltza, Zizur Nagusia.

Horretara bil daitezkeen proiektuak:

Enpresa berri bat ezartzeko aktibo material eta ez-materialetan inbertitzea; establezimendu bat handitzea; establezimendu baten ekoizpena dibertsifikatzea, produktu berrien eta bestelakoen merkatuak hornitzeko; establezimendu bateko ekoizpen prozesu orokorra funtsean aldatzea, eta establezimendu bati zuzenean loturiko aktiboak eskuratzea, baldin eta itxia izan bada, edo eskura-

tu ezik itxia izanen zena, eta eskuratzaileraren inbertsio-egile beregain bat bada.

Laguntza motak.

Inbertsiorako laguntzak honakoak izan ahalko dira:

a) Inbertsiorako zuzeneko diru-laguntza, haren gaineko ehuneko jakin batekin adierazia.

b) Laguntzak, maileguren interesen hobari gisa edo errentamendu finantzario gisakoak: gehienez ere 5 puntu, edo zenbateko apalagoa izanez gero, interes puntu guztiak.

Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren gehieneko kopuruak honakoak izan ahalko dira:

a) Mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat, % 15eko diru-laguntza gordina.

b) Enpresa ertainentzat, % 7,5eko diru-laguntza gordina.

Ekonomia bultzatzeko diru-laguntzak

Araubidea: Ekainaren 22ko 287/2009 Foru Agindua, Nafarroan ekonomia sustatzeko laguntzen aldi baterako araubidea onesten duena.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten jarduketek jaso ahalko dituzte diru-laguntzak:

a) Teknologia, dibertsifikazioa edo enpresen berregituraketa sartzearen izaera izatea.

b) Enpresak inbertsio ahalegin egokia egitea.

c) Enplegua sortu edo finkatzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako beste laguntza araubide batzuetara jotzerik ez duten jarduketak izatea.

Diruz laguntzen ahal diren gastuak eta laguntzen zenbatekoa, enpresa bakoitzeko 500.000 euro gehienez:

a) Bideragarritasunaren azterlanak: kanpoko aholkularitzaren gastuen %50ekoa izanen da diru-laguntza.

Enpresen berregituratze edo krisi prozesu baten ondoriozko enpresa berrien ekimenen kasuan, edo zenbait enpresaren ekimen bateratuaren kasuan, diruz laguntzen ahal den kostuaren %80koa izanen da diru-laguntza.

b) Inbertsio proiektuak: jarraian aipatzen diren gastuen %25ekoa izanen da diru-laguntza:

- Alternatibei buruzko azterlanak.

- Makineria eskuratzeko.

- Instalazioak zerbitzuan jartzea.

- Know-how eskuratzeko.

- Proiektua gauzatzearen ondoriozko beste gastu batzuk.

Krisian dauden enpresendako laguntzak

Araubidea: Ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legea, Nafarroan krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzkoa, eta irailaren 10eko 185/2007 Foru Dekretua, 3/2000 Foru Legea arlo horren gainean indarra duten Europar Batasuneko jarraibideetara egokitzeko arauak ematen dituena.

1. Salbamendurako laguntzak

Salbamendurako laguntzen funtsa izanen da abalaz maileguren uztea, hirugarrenengandik lortu beharreko kredituen berme gisa, edo maileguak ematea, enpresa abian jartzeko behar den likideziaz hornitzeko zenbatekoan, berregituratzeko edo likidezia izateko plana prestatzeko behar den denborarako bakarrik.

Zenbatekoak ezin izanen du enpresaren kutxa-ko fluxu negatibo eraginkorraren %50 gainditu, laguntza eman aurreko urtean.

Mailegu oro itzuli egin beharko da eta berme oro amaituko da enpresari lehen epea ordaintzen zaionetik hasita sei hilabeteko gehieneko epean.

2. Berregituratzeko laguntzak

Berregituratzeko laguntzen xedea da planean aipatzen diren eragiketa eta neurriak abian jartzea, enpresaren lehiakortasuna eta epe luzerako bideragarritasuna berreskuratzeko.

Berregituratze planetik ondorioztatzen diren beharren arabera, honakoak izan daitezke:

1. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, plantilla gutxitzeko kostuak eta bestelako kostu sozialak finantzatzeko.

2. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, enpresaren egoera finantzarioa hobetzeko.

3. Aurrerakin edo maileguak eta finantza entitateen maileguren berme gisako abalak.

4. Berregituratzeko plana finantzatzeko itunduriko maileguren korrituen hoberia.

5. Baldintza bereziak enpresak Nafarroako Foru Komunitatearekiko dituen zorrak zatitu eta geroratzeko.

6. Likidazio-oinarri negatiboen konpentsazioa.

3. Berregituratzeko planak prestatzeko laguntzak.

Berregituratzeko planak prestatzeko laguntzek ez dituzte gaudituko, hasiera batean, enpresak hori dela-eta kanpoko aholkulariei ordaindu behar dizkien kostuak. Laguntzaren zenbatekoa ez da hogeita hamar mila eurotik goitiko izanen. Enpresaren egoera dela-eta ehuneko hori gaudituko behar baldin bada, laguntzaren zenbatekoa ez du hirurogei mila euroko zenbatekoa gaudituko, gehienez ere.

Zailtasunak dituzten enpresentzako laguntzak

Araubidea: Ekainaren 8ko 268/2009 Foru Agindua, zailtasunak dituzten enpresentzako laguntzen araubidea ezartzen duena.

Laguntza motak

1. Mailegua, interes tasaren %50eko hobariaz, gehienez ere.

Hasiera batean, gehienez ere 500.000 euroko mailegua emanen da, 6 hilabetean itzuli beharrekoa. Bideragarritasun plana onetsi ondoren, gehienez ere 10 urteko epe baterako mailegua ematen ahalko da, hasierako mailegua xurgatuko duena.

2. Enpresak kanpoko aholkulariei pagatu behar dien bideragarritasun planaren kostuaren %80ko diru-laguntza gehienez, 30.000 euro bitarte.

NAFARROAKO GOBERNUKO BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINKO ALEGAZIOAK

“Enpresa-jarduera sustatzea” programari buruz eginiko fiskalizazioko behin-behineko txostenari dagokionez, honako alegazioak helarazten dizkizut:

IV. ONDORIOAK

IV.1 Aurrekontu-programaren betetzea (11. orrialdea)

Aipatutako IV.1 puntuko azken lerrokadan, honakoa esaten da: 2010eko aurrekontuari 900.836 euro egotzi zaizkio, 2009ko ekitaldian inbertsioengatik eta enpleguarengatik emaniko diru-laguntzei dagozkienak.

Bada, zenbateko hori dagokie inbertsioa eta enplegua laguntzeko espedientei, zati batean 2009an ordaintzen direnei. Laguntzak ordaintzeko egutegia proiektua exekutatzeko aldiaren menpean dago, baina aurrekontuan dirua izatearen menpean ere bai.

IV.2 Legezketasuna (11. orrialdea)

Bigarren lerrokadan honakoa esaten da: ez da egiaztatzen onuradun guztiek diruz lagundutako inbertsioari eutsi dioten ezarritako aldian.

Inbertsioei eusteari buruzko egiaztapena ondoz ondoko inbertsio-espedienteak dauzkaten enpresa guztietan egiten da. Horrek esan nahi du laguntza eskatzen duten enpresa guztien ehuneko 33,12an egiten dela. Honako hau da kalkulua:

2004/2010 aldian, 1.351 espediente izapidetu dira (ezezkoa emandakoak, deuseztatutakoak eta abarrekoak kenduta), eta 951 enpresari dagozkie. Horietatik 315ek espediente bat edo gehiago izapidetu dituzte. Horrenbestez, jarraipena egiten zaien ondoz ondoko espedienteak dituzten enpresak ehuneko 33,12 dira (315/951). Gure iritziz lagin behar bezain adierazgarria da.

Espediente guztien jarraipena egin nahiko balitz, giza baliabide eta baliabide material gehiago beharko lirateke. Gainera, betebeharrak horren amaierako helburua da deslokalizazioa eta enpresen itxiera saihestea. Horrelako egoerak gertatzen badira, beste bide batzuetatik izaten dugu haien berri. Esate baterako: Departamentuko Lan Harremanen Atalaren bidez, zeinak aldizka informazioa ematen baitu kontratuak amaiarazteko izapidetzen dituen espediente guztiei buruz; eta Prozedura Berezien Atalaren bidez, zeinak jakinarazten baitugu zein enpresatan dagoen zordunen konkurtso-rik...

Enpresek baja eman ohi diete diruz lagundutako aktiboari batez ere haien zaharkiturik geratzen direlako. Kasu hori araudi berrian jada jasota ageri da (maiatzaren 17ko 155/2007 Foru Agindua, maiatzaren 17ko 156/2007 Foru Agindua eta azaroaren 10eko 488/2009 Foru Agindua); izan ere, arau horietan onartzen da beren jarduerarekin jarraitzen duten enpresetan zaharkiturik geratu diren ekipak ordezteak.

Txostenean esaten da ez direla ezagutzera eman 2009. urtean inbertsioengatik emandako diru-laguntzak. Horri buruz, adierazi behar dugu 2010. urtean Nafarroako Gobernuaren internet-atarian (www.navarra.es) inbertsiorako laguntzen onuradun zerrenda jarri zela, bai eta laguntzen zenbatekoa ere.

IV.3 Eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia (12. orrialdea)

Lehenengo lau lerrokadei dagokienez, adierazi beharra dago programaren helburuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eta Kalitate Sistemaren helburu estrategikoetan sarturik daudela. Sistema horretan, kontrolako sistemak

definitzen dira eta, halaber, desbideratzeak aztertu eta behar diren neurriak hartzen dira.

Inbertsioa sustatzeko proiektua (12. orrialdea)

Txostenean adierazi bezala, aurreikusitako proiektuen ehuneko 97ri eman zaizkie diru-laguntzak, nahiz eta exekuzioari erreparatuta horrek hasierako kredituaren % 67,55 egiten duen. Ezberdintasun hori zor zaio bereziki enpresek egiazki eginiko inbertsioak hasieran aurreikusitakoak baino txikiagoak izateari. Sortu den aurrekontu-soberakina Enpesen Sustapenerako Zerbitzu beraren barreneko beste jarduketa batzuetara aldatu zen, haietan baliabide gehiagoren premia baitzegoen; esate baterako, Industria Birmoldatzek Ataleko berrabiatze-planak finantzatzeko kapitaleko aurrerakinen kontusailera. Halaber, soberakin horrekin dirua jarri zen enpresei babes emateko neurri berrirako, hain zuzen ere 2009an onetsi zen eta Nafarroako ekonomia bultzatzeko laguntzak izena duenerako. Neurri horren betetze-mailari dagokionez –txostenean adierazi bezala, % 38koa da–, argitu beharra dago hura ezartzen zen lehenengo urtea zela eta ezin izan zela abian jarri uztaile arte.

Espedienteak izapidetzeko erabilitako baliabideei dagokienez, aipatzen da Cein, S.A.ri eginiko enkarguaren gastuak % 27 egin duela gora. Bada, adierazi beharra dago gastu guztia ez dagokiola Inbertsioa Sustatzeko Atalari, zeren eta kontusailen arteko transferentziak saihesteko atal horri esleitu baitzitzaizkion departamentuko beste atal batzuetan lan egiten ari ziren langileak, atal horien aurrekontua amaitu ondoren.

V. GOMENDIOAK

Emandako maileguak (15. orrialdea)

Lehenengo lerrokada: “Interes tasa aurkeztutako bermearen arabera zehaztea.”

Argibideak: Laguntza hauen hartzaile izan ohi den enpresa-mota dela eta –zailtasun finantzarioak dauzkaten enpresak–, ahaleginak egin ziren kasuan kasuko arrisku-prima zehazteko, hain zuzen ere onuradunei funtsak ahal den azkarrena eman ahal izateko. Metodo horren funtsa zen prima hori ematea enpresak eskainitako bermeen arabera, eta berme horiek laguntza eman ondoren aurkeztu behar ziren. Planteamendu hori egin zen, zeren eta eskainitako ondasunen tasazioa egiteko prozedura eta bermea eratzeko eskrituraren gauzapena behar bezain luzeak baitira laguntzen “presako izatearekin” bateraezinak izateko.

Metodo horretan atzeman den eragozpen bakarra da laguntza emateko ebazpenean ez zela eperik ezartzen bermeak formalizatzeko, eta

horrengatik, kasu batzuetan, epe hori luzeegia izan dela.

Auditoria-txostena egin aurretik ere jada atzemandako zegoen akats hori, halere, 2010eko laguntzen deialdian, otsailaren 22an argitaratutakoan, zuzendu da. Arrisku-prima zehazteko prozedurak lehengo bera izaten jarraitzen du, baina laguntza emateko ebazpenean jada epe bat ezartzen da bermeak eratzeko, eta litekeena da behin hipoteka formalizatu ondoren arrisku-prima aldatzea. Bada, hori gertatzen bada, laguntza emateko ebazpena aldatuko da, interes-tasa egiazki aurkeztutako ondasunen arabera dagokion diru-laguntza gordina egokitzeko.

Hirugarren lerrokada: “Aurkeztutako laguntza-eskarien erregistroa osatu eta antolatzea.”

Zailtasunak dauzkaten enpresentzako laguntza-eskarien erregistroa laguntza horiei buruzko arau berria (268/2009 Foru Agindua) garatzen hasi aurretik hasi zen egiten, eta hartan bai krisi egoeran zeuden enpresak, bai zailtasunak zituztenak sartu ziren.

268/2009 Foru Agindua garatzen hasi aurretik, ez zegoen zailtasunak zituzten enpresentzako laguntzei buruzko araudi berezirik. Araudia krisian dauden enpresak arautzeko 185/2007 Foru Dekretua zen –3/2000 Foru Legearekin batera horrelako enpresak arautzen dituen–, bigarren xedapen gehigarrian, zailtasunak dauzkaten enpresak aipatzen zituen:

Bigarrena. “De minimis” laguntzak, larrialdian dauden enpresentzat.

Industria arloan eskumena duen departamentuak larrialdian dauden enpresentzako laguntzak ematen ahalko ditu, haien zenbatekoak, diru-laguntza gordinaren baliokidean neurturik, “de minimis” laguntzat jotzeko ezarritako mugak gainditzen ez baditu eta laguntza mota horretan sarturik ez dauden sektore edo jardueretarako erabiltzen badira. Hori guztia Batzordearen abenduaren 15eko 1998/2006 (EE) Erregelamenduari eta, hala badagokio, Batzordearen urriaren 6ko 1869/2004 (EE) Erregelamenduari bat. 1998/2006 (EE) Erregelamendua “de minimis” laguntzei buruzko EE Ituneko 87. eta 88. artikulua ukitzen ditu eta 1869/2004 (EE) Erregelamendua nekazaritza eta arrantza sektoreetako “de minimis” laguntzei buruzkoa da.

Horrenbestez, zailtasunak dituzten enpresen espedienteak, 2009ko sarrera-data dutenak, kudeatzen hasi ziren, une horretara arte egiten zen bezala, krisian dauden enpresentzako araudiaren arabera.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, nabarmen egin zuen gora zailtasun-egoeran egon eta laguntzak eskatu zituzten enpresen kopuruak. Kontu-hartzailetza delegatuak jo zuen ordura arte zegoen arau-petzea ez zela nahikoa eta horri buruzko arau berariazkoa egin beharra zegoela. Horrenbestez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren ekainaren 8ko 268/2009 Foru Agindua, zeinak zailtasun-egoeran dauden enpresentzako laguntzen araubidea ezartzen duen, sortu zen arestian aipatutako 185/2007 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren garapen baten gisara.

Hori dela eta, erregistroaren zenbait eskabide badaude, bai eta foru agindua argitaratu aurretiko eta zailtasunetan dauden enpresentzako laguntzen deialdiaren aurretiko zenbait txosten ere.

VI. Programaren aurrekontu-betetzeari buruzko analisia

VI.4 Finantza-aktiboak (23. orrialdea)

Bosgarren lerrokadan esaten da emandako aurrerakinak ez direla ezagutzera eman. Aditzera

eman behar dizut 2010ean Nafarroako Gobernuaren web atarian (www.navarra.es), deialdiaren emaitzak argitaratu direla, eta haietan enpresen izena eta diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi direla, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren inprimaki-ereduaren arabera.

Iruñean, 2010eko urriaren 22an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

NAFARROAKO GOBERNUKO BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilari José María Roig Aldasoro jaunak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

